

BESTELAKO XEDAPENAK

ZIENTZIA, UNIBERTSITATE ETA BERRIKUNTZA SAILA

2520

AGINDUA, 2026ko maiatzaren 26koa, Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntzako sailburuarena; honen bidez onesten dira ezagutza zientifikoa gizartean zabaltzeko laguntzen deialdia eta horren oinarri arautzaileak.

Egungo testuinguruan, desinformazioa ugari eta ezagutza zientifikoaren balioa zalantzan jartzen duten mugimenduen gorakada nabarmena direlarik, ezinbestekoa da ezagutzaren hedapen soziala indartzea, funtsezko zutabea baita, gizartea kritikoa, informatua eta demokratikoa izango bada. Kultura zientifikoa funtsezko osagaia da herritarrek parte har dezaten eztabaida publikoetan eta erabakiak hartzen direnean, bai eta zientziarekiko eta erakundeekiko konfiantza indartzeko ere.

Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntza Saila ekainaren 23ko 18/2024 Dekretuaren bidez sortu zen, eta bere gain hartzen du ezagutza zientifikoa eta berrikuntza euskal herritar guztiengana hurbiltzeko konpromisoa, hari ikusgarritasuna eta prestigio soziala emanez, eta zientzia, teknologia eta berrikuntzako euskal sistemako eragile guztien eta kultura, hezkuntza eta gizarte erakundeen parte hartze aktiboa sustatuz.

Deialdi honen helburuak hauek dira: euskal gizartearen ezagutza zientifikorako sarbidea zabaltzea; ezagutza eskuratu eta hartaz goatzeko arrakala sozialak murriztea; euskararen erabilera sustatzea dibulgazio zientifikoan; eta herritarren parte-hartzea bultzatzea ezagutza sortzeko eta transferitzeko prozesuetan.

Finantzaketa-tresna berri honek aukera emango du modu adierazgarriak zabaltzeko Jakindari, hau da, EAEko kultura zientifikoaren aldeko aliantza, osatzen duten eragileen dibulgazio-proiektuen irismena, bai publikoari dagokionez (gazteak, 65 urtetik gorakoak, kolektibo kalteberak, etab.), bai lurraldeei dagokien ere (EAEko hiriburuetatik urrun dauden udalerriak, arreta bereziko eremu geografikoak); eta berrikuntza eta eragile desberdinen arteko lankidetzaren ere sustatuko ditu.

Agindu honetan araututako dirulaguntzak sartzen dira Sailaren 2026rako dirulaguntzen plan estrategikoa onesteko Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntzako sailburuak emandako aginduan.

Deialdi hau ebatziko da Administrazio Publikoen dirulaguntzak emateko jarduera arautzen duten printzipioen arabera, arau hauetan ezarritako eran: Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legea; Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean ezarritako oinarrizko araudia; 38/2003 Lege horren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua; eta orobat, laguntzei eta dirulaguntzei aplikatzekoak zaizkien gainerako xedapenak.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14.2 artikuluan ezartzen dena aintzat hartuta, deialdi hau elektronikoki izapidetuko da.

Kontuan hartu da lehendakariaren ekainaren 23ko 18/2024 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorreko Sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta Sail bakoitzaren egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen (2024ko ekainaren 24ko EHAA, 123. zk.).

Horrenbestez, honako hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.— Ezagutza zientifikoa EAEko gizartean zabaltzeko proiektuak egiteko laguntzen oinarri arautzaileak onestea eta deialdia egitea, 2026. urterako.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Berrikuntzako zuzendariari ahalmena ematen zaio agindu hau garatu eta egikaritzeko beharrezkoak diren xedapenak eman ditzan.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka, interesdunek aukerako berraztertze-errekurtsoa jarri ahal izango diote Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntzako sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; edo, zuzenean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hileko epean, agindua aldizkari ofizial berean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

AZKEN XEDAPENETAKO HIRUGARRENA

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko maiatzaren 26a.

Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntzako sailburua,
JUAN IGNACIO PÉREZ IGLESIAS.

I. ERANSKINA

EZAGUTZA ZIENTIFIKOA GIZARTEAN ZABALTZEKO PROIEKTUAK SUSTATZEKO
LAGUNTZEN OINARRIAK, 2026. URTERAKO

1. oinarria.– Xedea eta helburua.

Deialdi honen xedea da dirulaguntzak ematea ezagutza zientifikoa EAEko gizartean zabaltzeko proiektuak egiteko 2026an.

Deialdi honen helburua da zientziaren eta berrikuntzaren ikusgarritasun soziala handitzea, haiek integratuz modu aktiboan eta irisgarrian, EAEko espazio publikoan eta bizitza kulturean eta sozialean; eta orobat, ezagutza zientifikoa eskuratu eta hartaz gozatzeko aukera erraztea ere, ekitate-baldintzetan, publikoen aniztasuna kontuan hartuta, lurralde, gizarte, ekonomia, kultura, hizkuntza edo funtzionaltasun arloetako oztopoak murrizten dituzten ekintza inklusiboen bidez. Era berean, ikerketa eta berrikuntza helburu dituzten prozesu zientifikoak eta haien balio soziala herritarrek hobeto ulertzea lortu nahi da, zientziaren ikuspegi zorrotz eta hurbileko bat bultzatuz eta, azkenik, pentsamendu kritikoa eta alfabetatze zientifiko funtzionala sustatuz, desinformazio zientifikoaren aurkako borrokan lagundu nahian.

2. oinarria.– Kreditu erabilgarria.

Agindu honen xede diren laguntzetarako 700.000 euro erabiliko dira guztira, EAEko Aurrekontu Orokorretan horretarako xedatutako aurrekontu-partidaren kargura. Honela banatuko da aurrekontua:

A modalitatea: banakako proiektuak. Gehienezko aurrekontu baliagarria, 200.000 euro.

B modalitatea: talde-proiektuak. Gehienezko aurrekontu baliagarria, 500.000 euro.

Modalitatearen batean kreditu baliagarrikerik geratuko balitz, beste modalitateari dagozkion proiektuak finantzatzeko erabili ahal izango da.

3. oinarria.– Entitate onuradunak.

Proiektuaren entitate onuradun izan daitezke multzo hauetako batean sartzen direnak, betiere Jakindariko kide, alegia, EAEko kultura zientifikoaren aldeko aliantzako kide, badira:

1.– Entitateek akreditatuta egon behar dute Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarearen Erregistroan (aurrerantzean, ZTBES); Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarearen osaera arautzeari eta eguneratzeari buruzko ekainaren 23ko 109/2015 Dekretuaren 28. artikuluan jasoa dago. Entitate eskatzaileek aipatutako erregistro horretan agertu behar dute, ondoan azaltzen diren kategoria hauetako batean, eskaera egiteko epea amaitu baino lehen eta laguntza egikaritzeko aldia amaitu arte:

- a) Oinarritzko eta bikaintasuneko ikerketa-zentroak (BERC).
- b) Euskal Unibertsitate Sistemako unibertsitateetako ikerketa-estruturak.
- c) Ikerketa Kooperatiboko Zentroak (IKZ).
- d) Osasun-ikerketarako zentroak (OIZ).
- e) Teknologia-zentroak.

f) Zientzia, teknologia eta berrikuntza zabaltzeko eragileak.

g) Eragile bereziak.

2.– Euskal Unibertsitate Sistema (EUS) osatzen duten unibertsitateak eta haiei atxikitako zentroak.

3.– Egoitza soziala EAEn duten eta Euskal Autonomia Erkidegoko Elkartearen Erregistro Orokorrean erregistratuta dauden irabazi asmorik gabeko fundazioak edo elkarteak, baldin eta, ZTBES-an erregistratuta egon gabe ere, kultura zientifikoaren aldeko Jakindari aliantzari atxikiak badira, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu baino lehen.

Entitate horiek zein bere kabuz edo taldean elkartuta aurkeztu ahal izango dute eskabidea. Taldea kontsideratzen da gutxienez 3 entitate lankide desberdin elkartzen direnean.

Taldean egin nahi diren eskaeren kasuan, lankidetzak-akordio bat formalizatu beharko dute parte hartzen duten entitateek, beraien legezko ordezkari guztiek sinatuta. Akordio horrek ezarriko ditu alderdi bakoitzaren betearazpen-konpromisoak, eta deskribatuko ditu finantzaketa banatzeko eta emaitzak ustiatzeko itundutako baldintzak, era horretan bermatzeko egiazko lankidetzak eraginkorra.

Talde horiek entitate lider bat izendatu beharko dute, eta hura izango da entitate ordezkaria edo ahalgizona, ahalak izango dituen talde osoari, entitate onuradun den aldetik, dagozkion betebeharrak betetzeko, abenduaren 21eko Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko 20/2023 Legearen 11.4 artikuluan ezarritakoaren arabera.

Entitateek proiektu bakarra eskatu ahal izango dute bi modalitateetako bakoitzean, kasu hauek izan ezik:

A) Euskal Unibertsitate Sistema osatzen duten unibertsitateek proiektu bakarra eskatu ahal izango dute banakako proiektuen modalitatean, baina ez dute mugarik izango lankidetzak-proiektuen modalitatean parte hartzeko.

B) Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarean eragile berezi gisa erregistratutako entitateek ezin izango dute banakako proiektuen modalitatean parte hartu, eta eskabide bakarra egin ahal izango dute lankidetzak-proiektuen modalitatean.

4. oinarria.– Entitate eskatzaile onuradunek bete beharreko baldintzak.

1.– Entitate eskatzaileek baldintza hauek bete beharko dituzte, onuradun izateko nahiz onuradun izaten jarraitzeko, emandako dirulaguntza likidatu arte: Baldintzak betetzen direla egiaztatuko da, bai dirulaguntza ematean, bai eta ordainketa egiteko unean ere:

a) Ezin dira onuradun izan, kasuan kasuko zehapenak ezartzen duen epea amaitu arte, dirulaguntzak edo laguntza publikoak eskuratzea eragozten dien administrazio- edo zigor-zehapenen bat jaso duten entitateak, eta horretarako gaitasunik gabe uzten dien legezko debekurik duten entitateak ere ez.

b) Erakunde onuradunek egunean izan beharko dituzte zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak. Gainera, dirulaguntzak itzultzeko betebeharrak ordainduta izan behar dituzte erakunde onuradunek.

Betekizun horiek bete beharko dira, bai onuradun izateko, bai hala izaten jarraitzeko ere, dirulaguntzaren likidazioa egin arte. Alde horretatik, egiaztapenak egingo dira, bai dirulaguntza ematen denean eta bai ordainketak egiten direnean ere.

c) Ezin dira agindu honetan araututako dirulaguntzen onuradun izan arau hauetan jasotako egoeretako batean dauden entitateak: Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 13. artikuluko 1., 2., 3. eta 4. apartatuak.

5. oinarria.– Entitate onuradunen betebeharrak.

a) Dirulaguntza ematea bidezko egiten duen jarduera gauzatzea edo horri dagokion egoeran egotea.

b) Entitate emaileari justifikatzea dirulaguntza ematea edo baliatzea eragin duten baldintzak eta betekizunak betetzen direla eta jarduera aurrera eraman dela. Jarduera pertsonen buruzkoa bada, datuak eman beharko dira, sexuaren arabera berezita.

c) Organo edo entitate emaileak egingo dituen egiaztatze-jarduketak onartzea, bai eta Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren kontrol-jarduketak ere, Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren kontura eskuratu diren dirulaguntzen kasuan. Era berean, Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren araudi bereziak xedatutako jarduketak ere onartu beharko dituzte, bai eta finantzaketa dela-eta beste kontrol-organo batzuek egin ditzaketenak ere.

d) Entitate emailea jakinaren gainean jartzea, beste edozein administraziok edo ente publikok nahiz pribatuk helburu bererako emandako dirulaguntzak, laguntzak, diru-sarrerak edo baliabideak eskuratuz gero. Jakinarazpena laguntza horien berri izan orduko egin behar da eta, nolanahi ere, jasotako funtsak zertarako erabili diren justifikatu baino lehen, edo justifikatzeko unean.

e) Entitate emaileari jakinaraztea laguntza eman zen unean kontuan hartutako egoera objektibo nahiz subjektiboetan izandako aldaketak, halakorik balego. Jakinarazpena aldaketaren berri izan orduko egin behar da eta, nolanahi ere, jasotako funtsak zertarako erabili diren justifikatu baino lehen, edo justifikatzeko unean.

f) Entitate onuradunaren izaera juridikoagatik beharrezkoa bada, kontabilitate-liburuak, izapidetutako erregistroak eta gainerako agiriak, behar bezala ikuskatuta, kasu bakoitzean onuradunari aplikatu behar zaizkion merkataritza- eta sektore-legeek ezarritakoaren arabera, bai eta dirulaguntzen oinarri arautzaileek eskatzen dituzten kontabilitateko egoera-orriak edo erregistro espezifiko guztiak ere, egiaztapen- eta kontrol-ahalak egoki betetzen direla bermatzeko.

g) Jasotako funtsen erabilpena frogatzen duten agiriak gordetzea, baita agiri elektronikoak ere, egiaztapen- eta kontrol-jarduketan xede izan daitezkeen bitartean.

h) Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeari buruzko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 27. artikuluan jasotako hedapen-neurriak aplikatzea.

i) Hizkuntzaren nahiz irudien begirunezko erabilera egitea ikuspegi intersektzionalarekiko eta, bereziki, sexu- eta genero-alderdiekiko, dirulaguntza jasotzen duen jarduerak edo proiektuak beharrezkoak dituen dokumentu nahiz material guztietan.

j) Herritarren hizkuntza-eskubideak eta bereziki euskararen erabilera bermatzea diruz lagundutako jarduerarekin zerikusia duten argitalpenetan, iragarkietan eta publizitatean.

k) Zalantzarik izanez gero, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeari buruzko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 14. eta 42. artikuluetan xedatutakoari begiratuko zaio.

6. oinarria.– Proiektuek bete beharreko baldintzak.

1.– Finantzatuko diren proiektuak izango dira berritzaileak edo diseinu berrikoak, hau da, EAEn lehenengo aldiz ezartzen direnak.

2.– Hala ere, diseinu berrikoak ez diren proiektuak ere finantzatu ahal izango dira, baldintza hauetako bat betetzen dutela egiaztatzen badute:

2.1– Beren irismena handitzeko helburua dutela frogatzea, publiko nahiz eremu geografiko berriei erantzuten dietelako. Proiektuaren irismena handitzen dela ulertuko da jarraian zehazten diren bi egoeretako bat, gutxienez, gertatzen denean:

a) Proiektuak helburua du, eta horretarako behar diren mekanismoak aurreikusten ditu, onura ekartzeko, modu bereizian, gutxienez, biztanleriaren bi segmentu espezifiko berrirentzat, hala nola, gazteentzat, 65 urtetik gorakoentzat, bazterketa-arriskuan dauden kolektiboentzat edo desgaitasuna duten pertsonentzat.

b) Proiektuak asmoa du jarduerak egiteko, gutxienez, EAEko bi udalerri berritan, non aurretik inongo jarduerarik ez zuen egiten.

2.2– Erakustea beren formatuan edota metodologian inpaktu handiagoa lortzeko berrikuntzaren bat txertatzen dutela.

Horretarako, berrikuntzat hartzen dira teknologia interaktiboak edo murgiltzaileak baliatzen dituen; artea eta zientzia hibrifikatzen dituzten formatuak; gamifikazioan oinarritutako metodologiak; eta esperimenez eta publikoaren parte-hartzea ahalbidetzen duten metodologiak eta tresnak txertatzen dituenak.

Banakako proiektuen gutxienerako aurrekontua 8.000 eurokoa izango da, eta 20.000 eurokoa, gehienez. Lankidetzako proiektuek 50.000 euroko aurrekontua izan beharko dute gutxienez, eta 80.000 eurokoa gehienez.

7. oinarria.– Diruz lagundu daitezkeen jarduketak.

1.– Jakintza gizartean zabaltzeko proiektuak finantzatu ahal izango dira, baldin eta jardueratipoa hauetakoren batean sartzen badira:

a) Zientzia eta berrikuntzako azokak edo jaialdiak.

b) Zientziaren dibulgazioko ikuskizunak.

c) Bisita gidatuak ikerketa-zentroetara, edo interes zientifikoko lekuak ezagutzeko ibilbideak eta esperientziak diseinatzea eta garatzea.

d) Erakusketak, instalazioak eta erakustaldiak.

e) Hitzaldi-zikloak, elkarriketak, konferentziak, bakarrizketak, etab.

f) Tailer esperimentalak.

g) Ikus-entzunezko, irratiko edo podcasteko proiektuak.

h) Herriarren zientziari buruzko proiektuak.

i) Gazteek karrera zientifikoekiko interesa izan dezaten sustatzeko proiektuak.

2.– Honako jarduketa mota hauek ez dira finantzatu:

a) Hezkuntza- eta pedagogia-ikuspegia duten proiektuak, STEAM konpetentziak ikasleekin edo irakasleekin lantzeko helburua dutenak.

b) Zientzia eta berrikuntzako profesionalei zuzendutako kongresuak edo mintegiak antolatzea.

c) Edozein motatako lehiaketak edo sariak.

d) Ezin emango zaie laguntzarik nahiz dirulaguntzarik sexuan oinarrituta diskriminatzen duten jardueri, eta sexuan oinarrituta diskriminatzeagatik, edo emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko araudia ez betetzeagatik, administrazio-zehapen edo zigorren bat jaso duten pertsona fisiko nahiz juridikoei ere ez, dagokion zehapenean ezarritako denbora-epe osoan.

8. oinarria.– Diruz lagundu daitezkeen gastuak.

Emandako laguntza erabiliko da eskaeraren xede den proiektua gauzatzearekin zuzenean lotutako gastuak ordaintzeko, bai taldeko entitate liderrari dagokionez, bai erakunde laguntzaileei dagokienez ere.

Diruz lagundu daitezkeen gastutzat hartuko dira onartutako gauzatze-aldian egindakoak (2026ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean) eta laguntzaren justifikazioa aurkezteko epea amaitu baino lehen benetan ordaindutakoak.

Deialdi honetan ez dira inola ere diruz lagunduko beste edozein deialdi, laguntza, diru-sarrera edo baliabide publiko edo pribaturen bitartez osorik edo zati batean finantzatzen diren gastuak. Zehazki, ezin dira laguntza honen xede izan Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren aurrekontuen kontura diruz lagundutako langile-gastuak.

Entitate eskatzaileak proiektua finantzatzeko iturri guztiak deklaratu beharko ditu, eta laguntza eskatzen duen gastuetarako finantzaketa bikoitzik ez dagoela egiaztatu beharko du. Finantzaketa bikoitza antzemanaz gero, organo emaileak murriztu edo baztertu egingo du eragindako gastua.

Kontzeptu hauek finantza daitezke:

- Proiektuari atxikitako entitate onuradunen langile-kostuak, sinatutako lankidetzak-akordioan jasotako konpromisoen banaketan oinarrituta. Langileen kostuek ezin izango dute, inola ere, proiektuaren aurrekontu osoaren % 70 gainditu.
- Proiektuari lotutako jarduerak edo bilerak egiteko mugikortasun-kostuak (bidesaria, gasolina, garraio publikoko txartela), baldin eta proiektua gauzatzeaz arduratzen den taldeko kideren batek egin badu gastua.
- Material suntsikorra eta proiektuko jarduerak gauzatzeari zuzenean lotutako hornidurak eskuratzeko kostuak.
- Aholkularitza, ebaluazio, hedapen, publizitate, itzulpen eta zerbitzu baliokideen kostuak, laguntzaren xede den jardura zuzenean gauzatzeko direnak, soilik.
- Aretoak alokatzeko eta ekitaldiak antolatzeako gastuak, lotura zuzena dutenak proiektua gauzatzearekin.
- Azpikontratatu ahal izango dira finantzatzeko jardueraren parte diren jarduerak, baldin eta erakunde onuradunak berak edo haren laguntzaileek egin ezin badituzte. Hori proiektuaren memoria teknikoan egiaztatu beharko da. Azpikontratatzeko jardueraren zenbatekoa ezin da izan finantzatzeko jardueraren zenbatekoaren % 30 baino handiagoa.

Ezin izango da laguntzarik eskatu gastu hauek ordaintzeko:

- Kalte-ordainak edo laneko bajak.
- Boluntario-lana egiten duten pertsonen emandako orduak.
- Zorrak ordaintzea.
- Amortizazio finantzarioak, komisioak edo gastu finantzarioak.

- Bulegoko ekipamenduak, alokairuak nahiz hornidurak eragindako gastuak.
- Informatikako materiala.

9. oinarria.– Finantzaketa-baldintzak, proiektuak gauzatzea eta dirulaguntza ordaintzea.

Deialdi honen esparruan emandako laguntzek aurrekontu osoaren % 100 finantzatu ahal izango dute gehienez; finantzaketaren gehieneko muga 20.000 eurokoa izango da banakako eskaeratarako eta 80.000 eurokoa lankidetzeta-eskaeratarako. Proiektuak jasoko balitu laguntzarik beste deialdiren batetik, ezin izango du inoiz aurrekontuaren zenbateko osoa gainditu.

Proiektuak 2026ko ekitaldian hasiko dira gauzatzen, 2026ko urtarilaren 1etik gehienez ere hilabeteko epean, laguntzen deialdi honetan laguntza ematearen aldeko ebazpena jaso duenetik zenbatzen hasita. Ebazpenean zehaztuko da entitate onuradun bakoitzari emandako finantzaketa.

Proiektua gauzatzeko benetako kostua, azkenean, aurkeztutako aurrekontua baino txikiagoa bada, hasieran emandako zenbatekoa murriztuko da, proiektuaren azken kostuaren proportzio berean.

Administrazioak dirulaguntzak ordaindu ahal izateko, entitate onuradunak Eusko Jaurlaritzak horretarako eskainitako datu-basean agertu beharko du. Alta emateko, edo hirugarren interesdunaren datuak aldatzeko, Eusko Jaurlaritzak eskaintzen duen hirugarrenentzako erregistro telematikora jo beharko du, honako helbide honetan: <https://www.euskadi.eus/altaterceros>

10. oinarria.– Eskaerak eta dokumentazioa.

1.– Eskaerak egiteko, formulario bat bete beharko da, zeina bide telematikoz eskuratu ahal izango baita Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntza Saileko egoitza elektronikoa, webgune honekin: www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus (<https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/1267101>).

Eskabidea elektronikoki sinatzeko, entitate eskatzaileak erakunde-txartela izan beharko du eta, halakorik izan ezean, legezko ordezkariak alta hartu beharko du, Eusko Jaurlaritzako Ordezkarien Erregistroan (Gobernantza Publikoaren eta Autogobernuaren kontseilariaren 2023ko azaroaren 14ko Agindua).

Aplikaziora sartzeko ziurtagiri elektronikoa erabiliko da (NAN elektronikoa, ONA txartela, FNM-Tren pertsona fisikoen ziurtagiria, BAK-q). Aplikaziora sartzen diren pertsonak baimena ematen diote Berrikuntza Zuzendaritzari (deialdia kudeatzen duen organoari) nortasun-datuak administrazio eskudunean egiazta ditzan, bitarteko elektronikoen bidez edo eskuragarri dituen bestelako baliabideen bidez.

Dirulaguntzaren eskabidea aurkeztuta, entitate eskatzaileak baimena emango dio organo kudeatzaileari, zuzenean egiazta ditzan Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzen duen abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 14. artikulua f) apartatuan aurreikusten diren inguruabarrak.

Dena dela, eskatzaileak espresuki ukatu ahal izango du baimena. Hala eginez gero, eskaerarekin batera, beharrezko egiaztagiri eguneratuak aurkeztu beharko ditu.

2.– Behin eskabidea osorik beteta, eta oinarri honen 4. apartatuan zehaztutako dokumentuak erantsita, entitateak edo legezko ordezkariak elektronikoki sinatu beharko du eskabidea, 1. apartatuan adierazitakoarekin bat etorritik; une horretan geratuko da erregistraturik eskabidea.

3.– Eskabideak aurkezteko epeak.

Eskabidea eta dokumentazioa aurkezteko epea hilabetekoa izango da, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

4.– Eskabidearekin batera, dokumentazio hau aurkeztu behar da:

- Proiektuaren memoria, IV. eranskineko inprimakiari jarraituz.
- Proiektuaren aurrekontua.
- Proiektuaren arduradunak emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan duen prestakuntza egiaztatzea.
- Herriko edo eskualdeko sare edo plataforma bateko kide izanez gero (Jakindari eta ZTBES ez direnak), parte-hartze hori egiaztatzen duen ziurtagiria aurkeztea. Lankidetzan parte hartzen duten entitateek egoera hori egiaztatu beharko dute, proiektua gauzatzeko rolen banaketa eta aurrekontua jasotzen dituen dokumentu bat aurkeztuz, entitate lankide bakoitzeko legezko ordezkariak sinatua. Kasu horietan, beraz, eskaera aurkeztuko du proiektuan parte hartzen duen eta taldeko lider gisa jarduten duen entitatearen legezko ordezkariak.

Hala badagokio, proiektua finantzatzeko beste iturri batzuk aurkezteko ebazpenaren edo ebazpenen kopia, eta, kasua bada, eskatu eta ebazteke dauden laguntzen deklarazioa.

11. oinarria.– Eskabidearen akatsak zuzentzea.

1.– Eskabidea izapidetzea onartzeko eskatutako dokumentu batzuk falta direla edo horietan forma-akatsak daudela ikusiz gero, edo eskabidea balioesteko aurkeztutako dokumentuetan akatsik aurkituz gero, hamar egun balioduneko epea emango zaio interesdunari akatsa konpontzeko edo aginduzko dokumentuak aurkezteko, eta jakinaraziko zaio ezen, hori egiten ez badu, haren eskabidean atzera egin duela edo izapidetzeko eskubidea galdu duela ulertuko dela; betiere, aldez aurretik, dagokion ebazpena emango da. Hori guztia, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68.1. eta 21.1 artikuluetan xedatutakoarekin bat etorritik.

Zuzentzeko errekerimenduaren jakinarazpena egingo da zuzendu beharreko eskabideak www.euskadi.eus egoitza elektronikoko iragarki-taulan argitaratuta.

2.– Nolanahi ere, beste edozein agiri edo informazio eskatu ahal izango zaie eskatzaileei, beharrezkotzat jotzen bada, aurkeztutako eskabidea behar bezala ulertu, ebaluatu eta izapidetu ahal izateko. Arau honetan espresuki aurreikusi ez diren gaitan, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean xedatutakoa aplikatuko da.

12.– Eskabideak aztertzea eta ebazpen-proposamena.

1.– Aholku Batzorde batek aztertu eta ebaluatuko ditu aurkeztutako eskabideak, eta txosten bat helaraziko dio Balorazio Batzordeari; hark zehaztuko du egindako ebaluazioaren emaitza.

2.– Aholku Batzordearen osaera Zientzia eta Berrikuntzako sailburuordearen ebazpen bidez zehaztuko da, eta EHAAn argitaratuko da, Batzordearen lehen bilera egin aurretik. Gutxienez hiru eta gehienez bost izango dira, dibulgazio zientifikoaren eremuko profesional independenteen artean aukeratuak, eta sektore guztiak ordezkatzeko dituzte.

3.– Aholku Batzorderako izendatutako aditu profesionalek erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko dute, honako hauek egiaztatzeko: Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzen duen abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 8.5 artikuluen arabera, beraiek ez daudela Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legean, urriaren 1ekoan, ezarritako abstentzio-arrazoietako batean ere; konfidentzialtasuna bermatzen dutela; eskatzaileek aurkeztutako dokumentazioa proiektuak baloratzeko soilik erabiliko dela, eta balorazioa deialdi honetan ezarritako irizpideen arabera egingo dela; eta azkenik, balorazioa egin ondoren, espedienteetan jasotako dokumentazio guztia itzuliko zaiola deialdia kudeatzen duen organoari.

4.– Balorazio Batzordeko buru izango dira Berrikuntzako zuzendaria edo hark eskuordetuko duen pertsona; Zientzia Politikarako zuzendaria; eta Berrikuntza Zuzendaritzako teknikari bat, Berrikuntza zuzendariak izendatuko duena. Azken horrek idazkari eginkizunak egingo ditu, hitzarekin baina botorik gabe. Idazkariaren eginkizuna kide anitzeko organoaren jardunaren legezkotasun formala eta materiala bermatzea izango da.

5.– Balorazio Batzordea eratuko da Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 3.10 artikuluan xedatutakoaren arabera.

6.– Berrikuntzako zuzendariari dagokio aurkeztutako eskabideetan ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatzea, bai eta aurrekontua aztertzea eta, kasua bada, onartutako aurrekontu osoa zehaztea ere, 2. eta 9. oinarrietan ezarritako mugen barruan.

7.– Aholku Batzordeak, eskaerak ebaluatu ondoren, III. eranskinean jasotako balorazio irizpideetan oinarrituta, txosten bat prestatuko du, egindako ebaluazioaren emaitzak azaltzeko, abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 21. artikuluan ezarritako baldintzetan.

8.– Balorazio Batzordeak eskatzaileei eskatu ahal izango dizkie beharrezkotzat jotzen dituen argibide guztiak, aurkeztutako eskabideak behar bezala ebaluatzeko.

9.– Berrikuntzako zuzendariak, espedienteak eta Balorazio Batzordearen akta ikusita, behin betiko ebazpen-proposamena egingo du.

10.– Proposamena dirulaguntza ematearen aldekoa bada, honako hauek jaso beharko ditu: entitate onuradunaren identifikazioa, banakako proiektuen modalitatearen kasuan, eta erakunde onuradun guztien identifikazioa, taldekako proiektuen modalitatearen kasuan, entitate onuradun bakoitzari esleitutako zenbateko osoa eta gauzatzearen eta emaitzen ebaluazioaren adierazleak.

11.– Proposamena laguntza ez ematekoa bada, identifikatu behar da zein entitatek eskatzen duen dirulaguntza eta zergatik ukatzen zaion.

13. artikulua.– Organo kudeatzailea.

Laguntza hauen organo kudeatzailea Berrikuntza Zuzendaritza da.

14. oinarria.– Ebaluatzeko irizpideak.

1.– Dirulaguntzak emateko ebazpen-proposamena prestatzeko xedez, Balorazio Batzordeak aintzat hartuko ditu III. eranskinean aipatzen diren irizpideak, eta horiek aplikatuko ditu, eskaerak ebaluatu, hautatu eta lehentasunen arabera ordenatzeko. Hona hemen puntuatu beharreko apartatuak:

Modalitatea: lankidetzako proiektuak.

Talde-proiektuen eskarietarako irizpideak	Puntuazioa (gehienez 100)
Esperientzia dibulgazio zientifikoko proiektuen kudeaketan.	6
Genero-berdintasuna	4
Lankidetzarako gaitasuna.	10
Proiektuaren irismena	20
Proiektuaren kalitate teknikoa	29
Genero- eta ekitate-ikuspegia (dibulgazio inklusiboa).	9
Aurrekontuaren koherentzia	14
Euskarazko dibulgazioa.	8

Modalitatea: banakako proiektuak.

Proiektuen banakako eskaerarako irizpideak	Puntuazioa (gehienez 100)
Esperientzia dibulgazio zientifikoko proiektuen kudeaketan.	6
Genero-berdintasuna	4
Lankidetzarako gaitasuna.	5
Proiektuaren irismena	20
Proiektuaren kalitate teknikoa	34
Genero- eta ekitate-ikuspegia (dibulgazio inklusiboa).	9
Aurrekontuaren koherentzia	14
Euskarazko dibulgazioa.	8

15. oinarria.— Esleitzeko prozedura.

Dirulaguntzen esleipena bi fasetan egingo da:

1.— Dirulaguntzak lehiaketaren bidez emango dira, lehia bidezko konkurrentzia-prozeduran, eta proiektuaren iraunaldi osorako izango dira. Horretarako, Berrikuntzako zuzendariak egingo du laguntzak esleitzeko proposamena, aurkeztutako eskabideak ebaluatu ondoren.

2.— Ebaluazioan, 60 puntuko edo hortik gorako balioespena erdiesten duten eskaerak bakarrik lagundu ahal izango dira diruz.

3.— Onartuko den aurrekontua eskatutako aurrekontua izango da, 8. oinarrian ezarritakoari jarraituz, diruz laguntzekoak diren kontzeptu eta gastuetara egokitzen dela egiaztatu ondoren. Eman beharreko dirulaguntza bat etorriko da onartutako aurrekontuaren gehieneko zenbatekoarekin, baldin eta dagokion prozeduran adierazitako kredituak agortu ez badira, eta 2. eta 9. oinarrietan ezarritako mugarekin.

4.— Laguntzak lehentasun-ordenari jarraikiz esleituiko dira, balorazio-fasean proiektu bakoitzak kasuan-kasuan erdietsitako puntuazio orokorraren arabera.

Puntuazioan berdinketarik egonez gero, proiektuaren kalitate teknikoaren irizpidean lortutako baloraziorik onenaren arabera ebatziko da, eta orduan ere berdinketa egonez gero, proiektuaren irismenaren irizpideari jarraituko zaio.

16. oinarria.— Ebazpena.

1.— Zientzia eta Berrikuntzako sailburuordeak ebazpenak emango ditu agindu honetako laguntzak esleitzeko eta haien zenbatekoak zehazteko —ebazpen bat modalitate bakoitzeko—, deialdia Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo sei hilabeteetan. Ebazpen hori arrazoitu egin beharko da, eta bertan jasoko dira erakundearen identifikazioa, gauzatzeko epea, esleitutako zenbateko osoa, kalitatearen adierazleak eta emaitzen ebaluazioa. Ebazpena Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntza Saileko Egoitza Elektronikoen taula elektronikoa argitaratuko da, helbide elektronikoa honetan: www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus (<https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/1267101>).

2.— Ebazpena eman eta jakinarazi beharko da, beranduenez, agindu hau EHAA-n argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, sei hilabeteko epean. Emandako epe horretan ebazpena jakinarazten ez bada, eskabideak ez direla onartu ulertuko da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 24. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako.

3.– Jakinarazpena egingo da emandako laguntzak egoitza elektronikoko iragarki-taulan argitaratuz: <https://www.euskadi.eus/iragarki-taula-elektronikoa/>. Era berean, jakinarazpen elektronikoko bat igorriko da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko «Nire karpeta» atalera (<https://www.euskadi.eus/nire-karpeta/web01-sede/eu/>), eta ziurtagiri elektronikoarekin sartu beharko da bertara. Horrez gain, publikotasun-ondorioetarako, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian zerrenda bat argitaratuko da, adieraziz zein diren onuradunak eta zenbateko dirulaguntza ematen zaien, eta horiekin batera, kalitatearen adierazleak eta emaitzen ebaluazioa, iragarki-taulan argitaratu eta sei hilabeteko epean.

4.– Alde batera utzi gabe aurreko 3. apartatuan ezarritakoa, Berrikuntza Zuzendaritzak egingadako argitalpenen berri bidali ahal izango die interesdunei, SMS edo posta elektronikoko bidez. Abisu horiek ez dute, inolaz ere, jakinarazpena egin izanaren ondoriorik izango.

5.– Ebazpenaren aurka, interesdunek gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango diote Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntzako sailburuari, hilabeteko epean, ebazpena www.euskadi.eus egoitza elektronikoko iragarki-taulan argitaratu eta biharamunetik aurrera.

6.– Entitate onuradunen batek espresuki uko egiten badio emandako dirulaguntzari, edo ordainketa egin aurretik dirulaguntza jasotzeko eskubidea galtzen badu, esleitutako kreditua 14. oinarrian ezarritako balorazio-irizpideen arabera puntuazio handiena lortu duen hurrengo eskarira bideratu ahal izango da, beste deialdi bat egin beharrik gabe, baldin eta kreditu egokia eta nahikoa badago.

7.– Ebazpen-proposamenean, onuradun gisa proposatutako eskaeren zerrendaz gain, erreserbako zerrenda bat ere jasoko da. Zerrenda horretan sartuko dira eskatutako baldintzak betetzen dituzten baina kreditu-urritasunagatik onuradun izan ez diren eskabideak, puntuazio handienetik txikienera ordenatuta. Erreserbako zerrenda hori erabiliko da, modu eksklusiboan, kredituak berriro esleitzeko, baten bat liberatu bada, uko egitearen, dirulaguntza ez onartzearen edo dirulaguntza jasotzeko eskubidea galtzearen ondorioz, betiere ezarritako lehentasun-hurrenkera errespetatuz.

17. oinarria.– Beste dirulaguntza eta laguntza batzuekiko bateragarritasuna/bateraezintasuna.

Dirulaguntza hau bateragarria da beste edozein administrazio edo ente publikok edo pribatuk helburu bererako emandako dirulaguntzak, laguntzak, diru-sarrerak edo baliabideak eskuratzearekin. Gainfinantzaketa motaren bat detektatuz gero, dagokion diru kopurua murriztuko da, deialdi honen bidez emandako finantzaketan. Eskatzaileak argi eta garbi azaldu beharko du zein diren kanpoko finantzaketaren xedea, jarduerak, zenbatekoa eta banaketa.

18. oinarria.– Laguntzak ordaintzea.

1.– Laguntzak honela ordainduko dira: % 70 laguntza ematen den unean eta % 30 proiektua justifikatu ondoren.

2.– Ordainketak 19. artikuluan ezarritako kontrolen mende egongo dira.

3.– Dirulaguntzak ez dira ordainduko entitate onuradunak ez badu egiaztatzen zerga-betebeharra eta Gizarte Segurantzarekikoak beteta dituela; ez da ordainduko, halaber, dirulaguntza edo laguntzaren bat itzultzeko badu.

4.– Egikaritze-fasea 2026ko abenduaren 31 baino lehen amaitu behar da. Proiektuaren gastuak egin ahal izango dira dirulaguntza esleitzean ezarritako egikaritze-aldi osoan zehar. Erakundeek finantzatutako zenbatekoaren % 70eko aurrerakina jasoko dute laguntza eman ondoren. Gainerakoa ordainduko da proiektuaren justifikazio ekonomiko eta tekniko egin ondoren, proiektua amaitu eta gehienez ere 15 eguneko epean, eta inoiz ez 2027ko urtarrilaren 15etik aurrera.

19. oinarria.— Laguntzaren justifikazioa, jarraipena eta kontrola.

1.— Erakunde onuradunek laguntzaren xede den ekimena osorik gauzatu dela justifikatu beharko dute, ekimena gauzatzeari buruzko azken memoria aurkeztuz. Memoria horretan, egingako jarduerak, lortutako helburuak eta ekimena garatzeko egindako gastuak zehaztuko dira, eta ordaindutako fakturak erantsiko dira. Era berean, eta proiektuak emakumeen eta gizonen egoeran duen eragina ezagutzeko, amaierako memoriak jaso beharko ditu, ahal den guztietan, garatutako jardueren onuradunen datuak, sexuaren arabera bereizita. Era berean, dirulaguntzaren xede den zerbitzua eskainiz parte hartu duen entitateko egikaritze-taldeko plantillari buruzko informazioa aurkeztu beharko da, sexuaren arabera banakatuta.

2.— Emandako laguntzarekin egindako gastu propioaren ziurtagiria. Zerrenda bat erantsiko zaio, fakturak eta haien zenbatekoa zehaztuko dituen. Entitate onuradunaren legezko ordezkariak sinatuta egon behar du dokumentu horrek.

3.— Diruz lagundutako jardueraren gastu eta diru-sarrera guztien balantze ekonomikoa. Entitate onuradunaren legezko ordezkariak sinatuta aurkeztu beharko da dokumentu hori.

4.— Ziurtagiri bat, erakunde onuradunaren legezko ordezkariak eginga, erakundeak ekitaldi horretan beste erakunde publiko edo pribatuetatik deialdiaren helburu bererako jasotako laguntza guztiei buruzkoa.

5.— Erakunde onuradunek Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzen duen abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 32. artikuluan ezarritakoa bete beharko dute, eta fakturak eta laguntzaren xede izan diren gastuak egiaztatzeko gainerako agiriak gorde beharko dituzte gutxienez bost urtez, justifikazio-epea amaitzen denetik aurrera.

20. oinarria.— Ez-betetzeak eta dirua itzultzea.

1.— Ezin izango da eskatu laguntza ordaintzeko eta, hala badagokio, jasotako zenbatekoak itzuli beharko dira, eta dagokien berandutze-interesak ere eskatu ahalko dira, baldin eta onuradunak erabateko ez-betetze egoera hauetakoren batean badaude:

a) Eskatzen diren baldintzak faltsutuz edo laguntza lortzea eragotziko zuketenen baldintzak ezkutatuz lortu badute dirulaguntza.

b) Dirulaguntza emateko oinarrizkoak diren xedeak, jarduera edo proiektua ez betetzea edo eskatzen den portaera ez izatea. Horri dagokionez, ez-betetzea izan dela ebatziko da Aginduen 16. artikulua xedatutako azken ebaluazio-prozedura burutu eta gero.

c) Gastuak justifikatzeko eginbeharra ez betetzea. Aurkezten ez badira finantzatu daitekeen inbertsioa egin dela justifikatzeko behar diren agiriak, organo emaileak horretarako eskaera egin ondorengo 15 egun balioduneko epean, jasotako zenbateko ez justifikatuak itzuli egin beharko dira. Dirua itzuli beharko da dagokion itzultze-prozedura izapidetu ondoren, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 40. artikuluan ezarritakoaren arabera.

2.— Halaber, aplikatzekoa izango da Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 36. artikuluan ezarritakoa.

21. oinarria.— Laguntzak aldatzea.

1.— Dirulaguntza emateko kontuan izan diren baldintzak aldatzen badira, edota beste edozein administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatutatik dirulaguntza gehiago lortzen bada, edota bestelako diru-sarrerarik balego helburu bera lortzeko, dirulaguntza emateko ebazpena alda

daiteke; betiere, onuradun izateko agindu honen 3., 4. eta 5. oinarrietan ezarritako gutxieneko baldintzak eta laguntzen xedeari dagokionez 6. oinarrian ezarritakoa betetzen badira.

2.– Berrikuntza Zuzendaritzak aldaketak onar ditzake aurrera eraman beharreko jardueretan, betiere aldez aurretik aldaketak egitea eskatzen badu entitate onuradunak eta amaitu aurretik guztiz justifikatzen baditu, eta ez baditu desitxuratzen haren izaera eta lortu nahi diren xedeak; nolanahi ere, bete beharko dira Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 25. artikuluan ezarritako baldintzak.

22. oinarria.– Datuen babesa.

Eskatzaileen datu pertsonalak tratatu egingo dira, eta tratamendu-jarduera honetan sartuko dira: Laguntzak eta dirulaguntzak (ikerketa sustatzeko). Informazio hau emango da:

Arduraduna: Berrikuntza Zuzendaritza; Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntza Saila.

Xedea: Oinarri zientifikoko berrikuntza finantzatzea eta bultzatzea.

Legitimazioa:

– Tratamendua beharrezkoa da interes publikoaren izenean egindako misio bat betetzeko edo tratamenduaren arduradunari esleitutako botere publikoak baliatzeko.

– 38/2003 Dirulaguntzei buruzko Legea, azaroaren 17koa.

– 20/2023 Legea, abenduaren 21ekoa, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzekoa.

– 3/2004 Legea, otsailaren 25ekoa, Euskal Unibertsitate Sistemarena.

Hartzaileak:

– Autonomia Erkidegoko beste organo batzuk.

– Ogasun eta Finantza Saila.

– Patente eta Marken Espainiako Bulegoa.

Eskubideak: pertsona eskatzaileak eskubidea du datuak eskuratu, zuzendu eta ezerezteko, bai eta informazio gehigarrian adierazitako beste eskubide batzuk ere.

Informazio gehigarria: Datuen babesari buruzko informazio gehigarria eta xehea dago gure web-orrian:

<https://www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/eu/gardentasuna/054300-cap2-eu.shtml>.

Araudia:

– Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra:

(<https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/HTML/?uri=CELEX:32016R0679&from=ES>).

– 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa (https://www.boe.es/boe_euskera/dias/2018/12/06/pdfs/BOE-A-2018-16673-E.pdf).

II. ERANSKINA

ESKAERA EGITEKO INPRIMAKIA

A. ENTITATE ESKATZAILEA ETA LEGEZKO ORDEZKARIA

ENTITATE ESKATZAILEA

IFK			
Sozietatearen izena			
Helbidea		PK	
Telefonoa		Helbide elektronikoa	

LEGEZKO ORDEZKARIA

Abizenak, izena			
NAN/AIZ		Sexua	☐ Gizona ☐ Emakumea
Helbide elektronikoa		1. telefonoa	2. telefonoa

B. ESKABIDEARI BURUZKO DATUAK

PROIEKTUAREN IZENBURUA			
PROIEKTUAREN IZENBURUA		TALDE-PROIEKTUA	
<i>Talde-proiektua hautatu baduzu, adierazi erakunde laguntzaileak.</i>			
IFK	Sozietatearen izena		
ZIENTZIA, TEKNOLOGIA ETA BERRIKUNTZARAKO EUSKAL SAREKO (ZTBES) KIDEA DA BAI / EZ			
JAKINDARI KULTURA ZIENTIFIKOAREN ALDEKO ALIANTZAKO KIDEA DA BAI / EZ			
LANKIDETZARAKO BESTE SARE EDO ALIANTZA BATEKO KIDEA DA BAI / EZ			
<i>BAIETZ erantzunez gero, ebazpena aurkeztu beharko da.</i>			

Sinatzen duenak, entitate eskatzailearen legezko ordezkaria izanik, aintzat hartuta Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntzako sailburuaren 2026ko maiatzaren 26ko AGINDUA, zeinaren bidez ezagutza zientifikoa gizartean zabaltzeko proiektuak egiteko laguntzak emateko oinarri arautzaileak iragartzen eta onartzen diren.

ESKATZEN DU

«Ezagutza Zabaltzen» laguntza bat eman dakiola, eskabide honi erantsita doan dokumentazioan jasotako datuen arabera, eta adierazten du entitateak betetzen dituela Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeako abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 13. artikuluan laguntzaren onuradun izateko ezarritako baldintzak, eta ez dituela urratzen «Ezagutza Zabaltzen» programaren laguntzei dagokienez aipatzen diren gainerako legezko debekuak:

1.– Ez du zigorrik jaso, epai irmo bidez, dirulaguntzak edo laguntza publikoak eskuratzea galarazi dionik, ez eta delitu hauengatik ere: prebrikazioa, funtzionario-eroskeria, ondasun publikoak bidegabe eralgitzea, influentzia-trafikoa, iruzurrak eta legearen aurkako ordainarazpenak edo hirigintza-delituak.

2.– Ez du egin borondatezko konkurtsoa deklaratzeko eskaerarik, ez dute kaudimengabetzat jo inongo prozeduratan, ez dago konkurtsoan deklaratura, salbu eta horretan eraginkortasuna hartu badu hitzarmen batek, ez dago esku-hartze judizialaren pean, eta ez du desgaitasuna-zigorrik jaso Konkurtsoari buruzko uztailaren 9ko 22/2003 Legearen arabera, konkurtsoa kalifikatzeko epaian ezarritako desgaitasuna-aldia amaitu gabe.

3.– Ez du eragin Administrazioarekiko kontratu baten suntsiarazpen irmorik, kausaren batean errudun deklaraturia izateagatik.

4.– Pertsona fisikoak, merkataritza-sozietateen administratzaileak edo beste pertsona juridiko batzuen legezko ordezkari direnak ez daude egoera hauetako batean: Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Bataerazintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legean aurreikusitako bataerazintasunen araubideko egoerak; Kargu Publikodunen Jokabide Kodea eta Haien Interes Gatazkak Arautzen dituen ekainaren 26ko 1/2014 Legean aurreikusitako egoerak; edo Hauteskunde Araubide Orokorren ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoan araututako hautapen bidezko kargu bat izatea, arau horretan edo gai hauek arautzen dituen arau autonomikoan ezarritakoaren arabera.

5.– Egunean ditu dirulaguntzak itzultzeko betebeharrak, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren 2023ko otsailaren 13ko Aginduen 4. artikuluan xedatutakoaren arabera (Agindua, 2023ko otsailaren 13koa, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren kontura ematen diren laguntzen eta dirulaguntzen esparruan bai zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak bai dirulaguntzak itzultzeari buruzkoak betetzen direla egiaztatzeari buruzkoa).

6.– Ez du dirulaguntzak eskuratzea galarazten duen ebazpen irmo bidezko zehapenik, betiere hala xedatzen duen ezein legeren arabera. Zehazki, ez du administrazio- edo zigor-zehapenik, sexuan oinarritutako diskriminazioa egiteagatik edo emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko araudia ez betetzeagatik, dagokion zehapenean ezarritako aldia amaitu gabe.

7.– Betetzen du Estatuko araudiaren arabera berdintasun-plan bat indarrean izateko betebeharra, bai eta sexu-jazarpena edo sexuan oinarritutako jazarpena prebenitzeko eta borrokatzeko neurriak ezartzeko betebeharra ere, emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko Estatuko legeriak ezarritakoaren arabera. Ondorio horietarako, jasota geratuko da Euskal Autonomia Erkidegoko Laneko Hitzarmen eta Akordio Kolektiboen eta Berdintasun Planen Erregistroa izatea.

8.– Ez du jardun LGTBI-fobia erakusten, bultzatzen ez sustatzen ere, barne hartuta konbertsio-terapiak sustatzea edo egitea (otsailaren 28ko 4/2023 Legearen 82. artikulua).

9.– Ez du zehapenik jaso arau hauste astun edo oso astunik egiteagatik, Hondakinak eta Lurzoru Kutsatuak arautu eta Ekonomia Zirkularra bultzatzeko apirilaren 8ko 7/2022 Legean edo Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legean aurreikusitakoaren arabera, administrazio-bidean emandako ebazpen irmo baten bidez, zuzenketa-neurri egokiak hartu eta zehapena ordaindu arte.

10.– Ez du bete gabe utzi desgaitasuna duten pertsonentzat legez ezarritako erreserba-kuota, hori betetzeko neurri alternatiboak abian jarri direla akreditatu gabe.

11.– Ez du jaso enpresa-deslokalizazioaren deklaraziorik, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 51. artikulua³ arabera.

12.– Betetzen ditu zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, legez ezarritakoaren arabera. (Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren 2023ko otsailaren 13ko Aginduaren 6.6 eta 8. artikuluen kasuan; agindu hori Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren kontura ematen diren laguntzen eta dirulaguntzen esparruan bai zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak bai dirulaguntzak itzultzeari buruzkoak betetzen direla egiaztatzeari buruzkoa da).

13.– Ez du gainfinantzaketarik.

Baldintzak betetzeari eta emandako datuen zehaztasunari buruzko erantzukizunpeko adierazpenak.

1.– Indarrean dagoen araudian ezarritako betekizunak betetzen ditu.

2.– Eskabide honetan jasotako datu guztiak egiazkoak dira eta osorik daude, baita aurkezten duten dokumentazioa ere, eta neure gain hartzen dut dagokion erantzukizuna (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.7 artikulua).

Erantzukizunpeko adierazpen batean edo komunikazio batean jasotzen den datu edo informazioen bat zehaztasunik gabea edo faltsua bada edo aurkeztu ez bada, edo administrazio eskudunari ez bazaio aurkezten erantzukizunpeko adierazpena, edo deklaritzen dena betetzen dela egiaztatzeko eskatzen den dokumentazioa, edo komunikazioa, kasu horietan, ezinezkoa izango da dena delako eskubidea baliatzen edo jardueran aritzen jarraitzea, egitate horien berri izaten den unetik bertatik aurrera, hargatik eragotzi gabe izan litezkeen erantzukizun penal, zibil edo administratiboak (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 69.4 artikulua).

Entitatearen legezko ordezkaria

NAN _____ Abizenak, izena _____

Deialdian parte hartzen dutenek baimena ematen dute deialdi hau izapidetzean jasotako datu pertsonalak tratatu eta argitaratzeko, betiere Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoarekin eta Titulartasun Publikoko Datu Pertsonalen Fitxategiei eta Datuen Babeserako Euskal Agentzia Sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearekin bat etorritik. Halaber, datuak ondoko fitxategi hauetako batean sartuko dira, 2010eko urriaren 4ko Aginduan araututakoaren arabera (2010eko azaroaren 5eko EHAA). Fitxategion helburua dirulaguntzen deialdia kudeatzea eta deialdian lehiatzen direnei prozesuaren bilakaeraren berri ematea da.

a) «Bekadunentzako laguntzak» fitxategia. Honako deialdi hauetako datuak biltzen ditu: Doktoratu aurreko eta doktoratu osteko laguntzak, Basque Visiting Fellow eta doktoratu aurreko egonaldiatarako laguntzak.

b) «Ikerketa» fitxategia. Honako deialdi hauetako datuak biltzen ditu: Ikertzaileen Mugikortasunerako Laguntzak; Kongresuak Antolatzea; Oinarrizko Ikerketako eta Ikerketa Aplikatuak; Unibertsitate-Enpresa Proiektuak; Ekipamendu Zientifikoa; IKZ programa; Euskal Unibertsitate Sistemako Ikertaldeak Jarduerak Sustatzeko Laguntzak, eta Ikerkuntzako Euskadi Saria.

Berrikuntza Zuzendaritza da fitxategi horien organo arduraduna. Berrikuntza Zuzendaritzan gauzatu ahal izango dira datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezeztatzeko eta haien aurka egiteko eskubideak. Horretarako, Eusko Jaurlaritzaren Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntza Saileko Berrikuntza Zuzendaritzara jo behar da (Donostia kalea 1, Vitoria-Gasteiz).

III. ERANSKINA

BALORAZIO-IRIZPIDEAK – Lankidetzaproiektuak.

Guztira	Talde-proiektuak eskatzeko irizpideak.	100	
Formulatua		40	
	Esperientzia dibulgazio zientifikoko proiektuen kudeaketan.	6	
	Entitate eskatzaileak (taldeko liderra) esperientzia egiaztagarria du ezagutza zientifikoa gizartean zabaltzeko proiektuetan, administrazio publikoren baten dirulaguntza hartuta, azken 5 urteetan.	6	
	Gutxienez bi erreferentzia, 5.000-10.000 euro arteko dirulaguntza jaso duten proiektuei buruz.		2
	Gutxienez 2 erreferentzia, 10.001 eurotik gorako dirulaguntza jaso duten proiektuei buruz.		3
	Gutxienez bi erreferentzia, 30.000-60.000 euro arteko dirulaguntza jaso duten lankidetzaproiektuei buruz.		4
	Gutxienez 2 erreferentzia, lankidetzan/aliantzan egin eta 60.001 eurotik gorako munta izan duten proiektuei buruz.		6
	Genero-berdintasuna.	4	
	Proiektuaren arduradunak (edota edukien arduradunak) emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko prestakuntza du, unibertsitate edo administrazio publiko batek egiaztatua.	2	
	25 eta 50 ordu bitarte.		1
	> 50 ordu		2
	Lantaldea osatzen duten pertsonen (entitate onuradun guztietakoek barne) oreka bermatzen dute genero ikuspegitik (% 40tik % 60ra bitartean emakumeak dira).	2	2
	Lankidetzaproiektuetarako gaitasuna eta esperientzia.	10	
	Entitate eskatzaileak planteatzen du proiektua EAEko beste entitate batzuekin lankidetzan gauzatzea, horiek erraztu ahal baitute helburu diren herritarrengana iristea eta haien inplikazioa, bai eta proiektuaren zabalkunde handiagoa eta iraunkortasuna ere.	4	
	Taldea osatzen dute 3 eta 6 bitarte entitatek.		2
	Taldea osatzen dute 7 eta 8 bitarte entitatek.		4
	Taldea osatzen duten entitateak profil osagarrikoak dira, eta horrek aukera ematen dio irismena eta berritzeko gaitasuna handitzeko.	5	
	Lankidetzan aritzea, gutxienez, zientzia eta berrikuntzaren sektoreko entitate batekin (Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarekoa*).		1
	Lankidetzan aritzea, gutxienez, gizarte inklusioan espezializatutako entitate batekin (Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialeko erakundeen erroldan erregistratua*).		1
	Lankidetzan aritzea, gutxienez, programazio artistiko-kulturalean espezializatutako entitate batekin (Kultur Klik* direktorioaren parte behar du izan).		1
	Lankidetzan aritzea, gutxienez, toki-administrazio publiko batekin.		1
	Lankidetzan aritzea, gutxienez, herrian/eskualdean errotutako elkarte batekin (egoitza edo jarduera nagusia bertan duena).		1
	Entitate eskatzaileak parte hartzen du herriko edo eskualdeko sare edo plataforma batean (Jakindari eta ZTBES aparte utzita), horrek erraztuko baitu lankidetzajarduerak garatzea.	1	1
	Proiektuaren irismena	20	
	Proiektuak asmoa du hainbat jarduera aurrera eramateko, probintziako hiriburu ez diren eta EAEn orain arte arreta eskasa izan duten hainbat herritan.	4	

Guztira	Talde-proiektuak eskatzeko irizpideak.	100	
Formulatua		40	
	Proiektuak aurreikusi du jarduerak egitea, gutxienez, EAEko lurralde historikoetako hiriburu ez diren bi herritan.		2
	Proiektuak aurreikusi du bere jardueren programa ibiltaria izatea, hiriburu ez diren eta lurralde historiko desberdinetan dauden 4 udalerri baino gehiagotan.		4
	Proiektuaren asmoa da arreta berezia behar duten hainbat landa-eremuri erantzutea.	4	
	Proiektuak jarduerak aurreikusi ditu, gutxienez, Arreta Bereziko Eremu (ABE) batean*.		2
	Proiektuak jarduerak aurreikusi ditu Arreta Bereziko Eremu (ABE) batean baino gehiagotan*.		4
	Proiektuak asmoa du auzo behartsuei arreta emateko, udalerri handietan edo kalteberatasun handiko edo oso handiko herrietan.	4	
	Proiektuak jarduerak aurreikusi ditu, gutxienez, kalteberatasun handiko edo oso handikoa den udalerri batean (geoeuskadiko hiri-kalteberatasunaren inbentarioaren arabera).		2
	Proiektuak jarduerak aurreikusi ditu kalteberatasun handiko edo oso handikoak diren udalerri batean baino gehiagotan (geoeuskadiko hiri-kalteberatasunaren inbentarioaren arabera).		4
	Proiektuak planteatzen du bere jarduera nagusietako bat egitea kalean edo kanpoko espazio publikoetan.	3	
	Proiektuak aurreikusten du jarduera bat kanpo-espazio batean egitea.		1
	Proiektuak jarduera gehienak aurreikusten ditu kanpo-espazioetan.		3
	Proiektuak hedapen-plan bat jasotzen du, ekintza espezifikoekin, helburu diren herritarrek osatzen duten segmentu mota bakoitza erakartzeko.	2	2
	Proiektuak erakusten du badituela beste finantzaketa-iturri batzuk, edo eskatu dituela, proiektuak irismen handiagoa izan dezan eta haren etorkizuneko iraunkortasuna bermatzeko.	3	3
Balio Iritzia		60	
	Proiektuaren kalitate teknikoa.	29	
	Helburuak zehaztasunez adierazita daude, espezifikoak dira, lorgarriak eta neurgarriak.	3	3
	Jarduerak egoki definituta eta artikulatuta daude helburuak lortzeko.	3	3
	Jardueretan formatu berritzaileak erabiltzen dira, eta hizkuntza egokituak, publikoaren profilaren arabera (ez dira formatu berriak: hitzaldiak, eztabaidak, bisita gidatuak, ohiko erakusketak, zine-forumak, zientzia-txokoak).	6	
	Berritasun ertaina (arte-zientzia diziplinarteko ikuspegiko formatuak, arte plastikoak, arte eszenikoak, esaterako antzerkia, dantza, magia, bertsolaritza; argazkilaritza, ikus-entzunezkoak...) ilustrazio zientifikoa / 3D diseinua erabiltzen duten formatuak. Gamifikazioa eta esperimendazioa erabiltzen dituzten formatuak (simulazio-jokoak, rol-jokoak, scape-jokoak, joko interaktiboak, esperimenduak, etab.).		4
	Berritasun altua (formatu hauetan erabiltzen dira animazioa, murgiltze-teknologia, errealtate birtualeko edo errealtate handituko teknologiak, bideo mappinga...).		6
	Metodologia eta tresna espezifikoak diseinatu dira sustatzeko publikoak inplikazio aktiboa izan dezan jardueren garapenean (herritarren zientziaren metodologiak, metodologia interaktiboak, herritarren parte-hartzerako tresnak, norabide bikoitzeko komunikazio-kanalak).	5	5
	Proiektuak erabiltzen ditu adierazle-sistema bat edota inpaktua neurtzeko eredu bat.	4	
	Emaitzen adierazleen taula bat aurkezten da (ez soilik jarraipeneko edo egikaritzeko).		2

Guztira	Talde-proiektuak eskatzeko irizpideak.	100	
Formulatua		40	
	Adierazleak eta ebaluatzeko edo inpaktua neurtzeko eredua aurkezten dira.		4
	Jarduerak modu egokian planifikatuta daude kronograma batean. Jardueren banaketa egokia da, sekuentzia eta iraupena aintzat hartuta.	4	
	Modu orokorrean aurkezten da, zehaztapenik gabe eta koherentzia edo oreka eskas dituen egutegi batekin.		1
	Zehaztasunez aurkezten dira aurrera eraman beharreko jarduerak eta haien egutegia, eta koherentea da proiektuaren baliabideekin eta aurrekontuarekin.		4
	Pertsonen funtzioak argi definituta daude eta aurrera eraman beharreko jarduerari lotuak.	4	
	Funtzioak orokorrean aurkezten dira, zehaztapenik gabe.		2
	Funtzioak xehetasunez aurkezten dira, eta arrazoizko banaketa batekin.		4
	Genero- eta ekitate-ikuspegia (dibulgazio inklusiboa).	9	
	Proiektuak programazio bat aurkezten du, genero-ikuspegia txertatzen duten jarduerak zehaztuz eta adieraziz aurrera eraman beharreko jardura mota, haren iraupena, edukiak, hura aurrera eramateaz arduratuko den lantaldea eta aurreikusitako ebaluazioa.	3	3
	Proiektuak programazio espezifiko bat aurkezten du, arreta emateko behar bereziak dituzten pertsonen (desgaitasun edo osasun egoera baten ondorioz, gizartean erabat parte hartzeko laguntza edo egokitzapen espezifikoak behar dituztenei).	3	3
	Proiektuak programazio espezifikoa eta metodologia egokituak aurkezten ditu, arreta emateko hezkuntza-mailan edo maila soziokulturean desabantaila duten pertsonen edo kolektiboen.	3	3
	Aurrekontua.	14	
	Aurrekontuaren kostuen egitura koherentea da proiektuaren anbizioarekin eta aurreikusitako irismenarekin.	8	
	Aurrekontua modu koherentean definituta dago, baina gastu batzuk ez daude behar bezala justifikatuta (gastu batzuk handiegia dira sortzen duten zerbitzurako edo produkturako, eta beste batzuk, berriz, ez lirateke beharrezkoak helburuak lortzeko).		3
	Aurrekontua koherentea da proiektuaren diseinuarekin, eta gastuak justifikatuta daude, nahiz eta erakundeen arteko banaketak ez duen orekarik, entitateen gaitasunen arabera.		5
	Aurrekontua koherentea da proiektuaren diseinuarekin. Gastuen diru-sailen justifikazioa zehatza da, eta taldea osatzen duten erakundeen arteko banaketa arrazoizkoa da haien dedikazioari dagokionez.		8
	Langileen kostuek oreka dute (langileen kostuen % 50 baino gutxiago) gainerako gastuekin alderatuta, eta behar bezala justifikatu dira (proiektuaren anbizioarekin koherentea den ordu-dedikazioa).	6	6
	Euskarazko dibulgazioa.	8	
	Proiektuak programazio bat aurkezten du, euskararen erabilera bultzatzen duten jarduerak bilduz (euskarazko materiala; bideratzaile edo bitartekari euskaldunak, publikoaren euskarazko interakzioa errazteko metodologia egokiak, etab.).		3
	Proiektuak programazioa aurkezten du, euskararen erabilera bultzatzen duten jarduerak bilduz, eta halaber, publiko eta testuinguru espezifikora egokitzeko ekintza espezifikoak ere.		8

BALORAZIO-IRIZPIDEAK – Banakako proiektuak.

Guztira	Talde-proiektuen eskarietarako irizpideak.	100	
Formulatua		35	
	Esperientzia dibulgazio zientifikoko proiektuen kudeaketan.	6	
	Entitate eskatzaileak aurretiko esperientzia egiaztagarria du, ezagutza zientifikoa gizartean zabaltzeko proiektuetan, administrazio publikoren baten dirulaguntzekin, azken 5 urteetan.	6	
	Gutxienez bi erreferentzia, 5.000-10.000 euro arteko dirulaguntza jaso duten proiektuei buruz.		1
	Gutxienez 2 erreferentzia, 10.001-20.000 euro arteko dirulaguntza jaso duten proiektuei buruz.		3
	Gutxienez 2 erreferentzia, 20.000 eurotik gorako dirulaguntza jaso duten proiektuei buruz.		6
	Genero-berdintasuna.	4	
	Proiektuaren arduradunak (edota edukien arduradunak) emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko prestakuntza du, unibertsitate edo administrazio publiko batek egiaztatua.	2	
	25 eta 50 ordu bitarte.		1
	> 50 ordu		2
	Lantaldea osatzen duten pertsonen (entitate onuradun guztietakoek barne) oreka bermatzen dute genero ikuspegitik (% 40tik % 60ra bitartean emakumeak dira).	2	2
	Lankidetzaren proiektuetarako gaitasuna eta esperientzia.	5	
	Entitateak esperientzia egiaztatua du dibulgazio zientifikoko proiektuetako lankidetzan.	2	2
	Entitate eskatzaileak lankidetzaren bat planteatzen du EAEko beste entitate batzuekin, nahiz eta elkarte gisa formalizatuta ez egon.	2	2
	Erakunde eskatzaileak parte hartzen du herriko edo eskualdeko sare edo plataforma batean (Jakindari eta ZTBES aparte utzita), horrek erraztuko baitu lankidetzaren jarduerak garatzea.	1	1
	Proiektuaren irismena.	20	
	Proiektuak asmoa du hainbat jarduerara aurrera eramateko, probintziako hiriburu ez diren eta EAEn orain arte arreta eskasa izan duten hainbat herritan.	4	
	Proiektuak jarduerak aurreikusi ditu, gutxienez, EAEko lurralde historikoetako hiriburu ez diren bi herritan.		2
	Proiektuak aurreikusi du bere jardueren programa ibiltaria izatea, hiriburu ez diren eta lurralde historiko desberdinetan dauden 4 udalerri baino gehiagotan.		4
	Proiektuaren asmoa da arreta berezia behar duten hainbat landa-eremuri erantzutea.	4	
	Proiektuak jarduerak aurreikusi ditu gutxienez Arreta Bereziko Eremu (ABE) batean*.		2
	Proiektuak jarduerak aurreikusi ditu Arreta Bereziko Eremu (ABE) batean baino gehiagotan*.		4
	Proiektuak asmoa du auzo behartsuei arreta emateko, udalerri handietan edo kalteberatasun handiko edo oso handiko udalerrietan.	4	
	Proiektuak jarduerak aurreikusi ditu, gutxienez, kalteberatasun handikoa edo oso handikoa den udalerri batean (geoeuskadiko hiri-kalteberatasunaren inbentarioaren arabera).		2
	Proiektuak jarduerak aurreikusi ditu, kalteberatasun handiko edo oso handikoak diren udalerri batean baino gehiagotan (geoeuskadiko hiri-kalteberatasunaren inbentarioaren arabera).		4
	Proiektuak planteatzen du bere jarduerara nagusietako bat egitea kalean edo kanpo-espazio publikoetan.	3	
	Proiektuak aurreikusten du jarduerara bat kanpo-espazio batean egitea.		1
	Proiektuak jarduerara gehienak aurreikusten ditu kanpo-espazioetan.		3

Guztira	Talde-proiektuen eskarietarako irizpideak.	100	
Formulatua		35	
	Proiektuak hedapen-plan bat jasotzen du, ekintza espezifikoekin, helburu diren herritarrek osatzen duten segmentu mota bakoitza erakartzeko.	2	2
	Proiektuak erakusten du badituela beste finantzaketa-iturri batzuk, edo eskatu dituela, proiektuak irismen handiagoa izan dezan eta haren etorkizuneko iraunkortasuna bermatzeko.	3	3
Balio Iritzia		63	
	Proiektuaren kalitate teknikoa.	34	
	Helburuak zehaztasunez adierazita daude, espezifikoak dira, lorgarriak eta neurgarriak.	3	3
	Jarduerak egoki definituta eta artikulatuta daude helburuak lortzeko.	3	3
	Jardueretan formatu berritzaileak erabiltzen dira, eta hizkuntza egokituak, publikoaren profilaren arabera (ez dira formatu berriak: hitzaldiak, eztabaidak, bisita gidatuak, ohiko erakusketak, zine-forumak, zientzia-guneak).	10	
	Berritasun ertaina (artea-zientzia diziplinarteko ikuspegiko formatuak, arte plastikoak, arte eszenikoak, esaterako antzerkia, dantza, magia, bertsolaritza; argazkilaritza, ikus-entzunezkoak...) ilustrazio zientifikoa / 3D diseinua erabiltzen duten formatuak. Gamifikazioa eta esperimentazioa erabiltzen dituzten formatuak (simulazio-jokoak, rol-jokoak, scape-jokoak, joko interaktiboak, esperimentuak, etab.).		5
	Berritasun altua (formatu hauetan erabiltzen dira animazioa, murgiltze-teknologia, errealitate birtualeko edo errealitate handituaren teknologiak, bideo mappinga...).		10
	Metodologia eta tresna espezifikoak diseinatu dira sustatzeko publikoak inplikazio aktiboa izan dezan jardueren garapenean (herritarren zientziaren metodologiak, metodologia interaktiboak, herritarren parte-hartzerako tresnak, norabide bikoitzeko komunikazio-kanalak).	6	6
	Proiektuak erabiltzen ditu adierazle-sistema bat edota inpaktua neurtzeko eredu bat.	4	
	Emaizta-adierazleen taula bat aurkezten da (ez soilik jarraipeneko edo egikaritzeko).		2
	Adierazleak eta ebaluatzeko edo inpaktua neurtzeko ereduak aurkezten dira.		4
	Jarduerak modu egokian planifikatuta daude kronograma batean. Jardueren banaketa egokia da, sekuentzia eta iraupena aintzat hartuta.	3	
	Modu orokorrean aurkezten da, zehaztapenik gabe eta koherentzia edo oreka eskas dituen egutegi batekin.		1
	Zehaztasunez aurkezten dira aurrera eraman beharreko jarduerak eta haien egutegia, eta koherentea da proiektuaren baliabideekin eta aurrekontuarekin.		3
	Pertsonen funtzioak argi definituta daude eta aurrera eraman beharreko jarduerari lotuak.	4	
	Funtzioak orokorrean aurkezten dira, zehaztapenik gabe.		2
	Funtzioak xehetasunez aurkezten dira, eta arrazoizko banaketa batekin.		4
	Genero- eta ekitate-ikuspegia (dibulgazio inklusiboa).	9	
	Proiektuak programazio bat aurkezten du, genero-ikuspegia txertatzen duten jarduerak zehaztuz eta adieraziz aurrera eraman beharreko jardura mota, haren iraupena, edukiak, hura aurrera eramateaz arduratuko den lantaldea eta aurreikusitako ebaluazioa.	3	3
	Proiektuak programazio espezifiko bat aurkezten du arreta emateko behar bereziak dituzten pertsonen (desgaitasun edo osasun egoera baten ondorioz, gizartean erabat parte hartzeko laguntza edo egokitzapen espezifikoak behar dituztenentzat).	3	3

Guztira	Talde-proiektuen eskarietarako irizpideak.	100	
Formulatua		35	
	Proiektuak programazio espezifiko eta metodologia egokituak aurkezten ditu, arreta emateko hezkuntza-mailan edo maila soziokulturalean desabantaila duten pertsonen edo kolektiboen.	3	3
	Aurrekontua.	14	
	Aurrekontuaren kostuen egitura koherentea da proiektuaren anbizioarekin eta aurreikusitako irismenarekin.	8	
	Aurrekontua modu koherentean definituta dago, baina gastu batzuk ez daude behar bezala justifikatuta (gastu batzuk handiegia dira sortzen duten zerbitzurako edo produkturako, eta beste batzuk, berriz, ez lirateke beharrezkoak, helburuak lortzeko).		3
	Aurrekontua koherentea da proiektuaren diseinuarekin, eta gastuak justifikatuta daude, nahiz eta entitateen arteko banaketak ez duen orekarik, entitateen gaitasunen arabera.		5
	Aurrekontua koherentea da proiektuaren diseinuarekin. Gastuen diru-sailen justifikazioa zehatza da, eta elkarteak osatzen duten entitateen arteko banaketa arrazoizkoa da, haien dedikazioari dagokionez.		8
	Langileen kostuek oreka dute (langileen kostuen % 50 baino gutxiago) gainerako gastuekin alderatuta, eta behar bezala justifikatu dira (proiektuaren anbizioarekin koherentea den ordu-dedikazioa).	6	6
	Euskarazko dibulgazioa.	8	
	Proiektuak programazio bat aurkezten du, euskararen erabilera bultzatzen duten jarduerak bilduz (euskarazko materiala; bideratzaile edo bitartekari euskaldunak, publikoaren euskarazko interakzioa errazteko metodologia egokiak, etab.).		3
	Proiektuak programazioa aurkezten du, euskararen erabilera bultzatzen duten jarduerak bilduz, eta halaber, publiko eta testuinguru espezifikoak egokitzeko ekintza espezifikoak ere.		8

*Arreta Bereziko Eremua (ABE):

1. Altzaga 2. Añana 3. Arakaldo 4. Armiñón 5. Arraia-Maeztu Artzentales 7. Aules 8. Baliarrain 9. Mañueta 10. Barrundia 11. Beizama 12. Berantevilla 13. Bernedo 14. Busturia 15. Kanpezu Ea 17. Elduain 18. Bilar 19. Ereño 20. Errezil 21. Erriberagoitia 22. Errigoi 23. Forua 24. Gabiria 25. Gaintza 26. Galdames 27. Gaztelu 28. Harana 29. Hernialde 30. Iruraiz-Gauna 31. Karrantza Harana 32. Kripan 33. Kuartango 34. Lagran 35. Lantziego 36. Lanestosa 37. Lantaron 38. Lapuebla de Labarca 39. Larraul 40. Leintz-Gatzaga 41. Leza 42. Meñaka 43. Moreda Araba 44. Morga 45. Mutiloa 46. Nabarniz 47. Navaridas 48. Orendain 49. Orexa 50. Urizaharra

IV. ERANSKINA

PROIEKTUA.

Izenburua.

Proiektu berria da? BAI / EZ

Berria EZ bada, justifikatu egokia dela:

– Haren irismena nabarmen handitu da.

- Gutxienez bi publiko-segmentu berri ditu helburu: zehaztu zein diren eta zer neurritan diren desberdinak aurrekoekin alderatuta (gehienez 200 karaktere).

- Gutxienez bi udalerri berri ditu helburu: zehaztu zein diren. (Gehienez 200 karaktere)

– Ikuspegi berritzailea du, inpaktu handiagoa lortzeko potentziala duena. Azaldu zer metodologia edo formatu berritzaile txertatu dituen. Justifikatu eta, hala badagokio, aurkeztu ebidentzia edo frogak. (Gehienez 200 karaktere).

Finantzazio partekatua BAI/EZ

Finantza partekatuaren datuak. Adierazi entitate finantzatzailea(k) eta jasotako laguntzaren guztizko zenbatekoa.

PROIEKTUAREN EZAUGARRIAK.

Zehaztu proiektuaren helburu nagusia eta, hala badagokio, helburu espezifikoak.

Zehaztu helburuak lortzeko aurrera eraman beharreko jarduerak.

Espero diren emaitzak eta aurreikusitako lorpen-helburuak identifikatzen ditu.

Identifikatu gauzatzearen eta emaitzaren adierazleak.

Azaldu erabiliko den jarraipen- eta ebaluazio-sistema.

Identifikatu publiko onuradunak. Haien ezaugarriak zehaztu eta azaldu, kasua bada, helburu diren herritarren segmentu bakoitzarentzat egingo den esku-hartze berezia. Zehaztu proiektuak bere helburuak lortzeko aplikatuko d(it)uen metodologia(k), eta zehaztu, halaber, zer formatu eta dinamika espezifiko erabiliko dituzun, identifikatutako publiko bakoitzerako.

Zehaztu eta justifikatu metodologia horren ikuspegi berritzailea.

Zehaztu publikoetara iristeko eta eskaintza garatzeko erabiliko diren espazioak edo kanalak. Justifikatu haren egokitasuna helburuak lortzeko.

Azaldu nola aurreikusten den erraztea esku-hartzearen jasagarritasuna. Zehaztu, hala badagokio, zer mekanismo ezarriko diren haren jarraipena, erreplikagarritasuna edo hedapena sustatzeko.

PROIEKTUAREN AURREKONTUA.

Zehaztu diruz lagundu daitezkeen kontzeptuen araberako kostuen egitura. Zehaztu haien diru-sail nagusiak eta justifikatu haien egokitasuna.

Kontzeptua Gastuak	Gutizkoa	Justifikazioa
Gastuak soldatetan		
Material suntsikorra erosteko gastuak		
Bidaia- eta dieta-gastuak		
Espazioen alokairuen kostuak		
Itzulpen-kostuak.		
Zerbitzu profesionalak azpikontratatzeari		
Beste batzuk		
Gutizkoa		

Talde-proiektua bada, zehaztu aurrekontua nola banatuko den parte hartzen duten erakundeen artean:

Kontzeptua Gastuak	Gutizkoa	Entitate liderra	1. entitate laguntzailea:	2. entitate laguntzailea:	3. entitate laguntzailea:
Gastuak soldatetan					
Material suntsikorra erosteko gastuak					
Bidaia- eta dieta-gastuak					
Espazioen alokairuen kostuak					
Itzulpen-kostuak.					
Zerbitzu profesionalak azpikontratatzeari					
Beste batzuk					
Gutizkoa					

Zehaztu, hala badagokio, lor litezkeen diru-sarrerak, eta argudiatu nola lortu diren edo lortuko diren. (Gehienez 200 karaktere).

PROIEKTUAREN EKINTZA-PLANA.

Zehaztu ekintza-plana, jarduera-ildoak, zeregin nagusiak, guztizko dedikazioa (ordutan) eta arduradunak.

Jarduerak edo jarduketa-ildoak	Eginkizun nagusiak	Eginkizunen arduraduna (izena)	Inplikaturako pertsonen kopurua	Orduak guztira

Erantsi kronograma bat (excel), jardueren plangintza jasotzeko proiektuaren egutegian.

Zehaztu eginkizunak eta proiektua gauzatzeko taldea osatzen duen pertsona bakoitzaren dedikazio-orduen zenbatespen bat.

Bete langileen dedikazio-taula kide bakoitzeko.

Lantaldea osatzen duten pertsonak	Antolakuntza	Abizenak	Izena	NAN	Kontratu-mota	Rola, ardura nagusia	1. urteko dedikazio-orduk	2. urteko dedikazio-orduk
1.								
2.								
3.								

Bete taula eta zehaztu proiektuaren jomugak eta espero diren emaitzak, bai eta proiektuaren aurrerapen eta betetze-mailaren jarraipen- edo monitorizazio-sistema ere.

Helburu espezifikoak	Espero diren emaitzak	Inpaktu-jomuga	Adierazlea	Neurtzeko metodoak.

Zehaztu proiektuaren kudeaketa-, jarraipen- eta ebaluazio-eredua (400 karaktere).

BESTE HAINBAT ALDERDI AZPIMARRAGARRI.

Zehaztu, hala badagokio, metodologiak eta kanalak edo tresnak baliatuko diren herritarrek jardueren garapenean interakzioa eta parte-hartze aktiboa izan ditzaten sustatzeko. (Gehienez 400 karaktere).

Zehaztu genero ikuspegia nola txertatu den proiektuan eta, hala badagokio, zer jarduera espezifiko erantsi nahi diren genero arrakalak gainditzeko ezagutza eskuratu eta hartaz gozatzeko orduan. (Gehienez 400 karaktere).

Zehaztu nola erantsi den dibertsitatearen (edo inklusioaren) ikuspegia eta azaldu, hala badagokio, zer jarduera espezifiko erantsi diren ezagutza eskuratu eta hartaz gozatzeko zailtasun handiena duten kolektiboek aukera izan dezaten. (Gehienez 400 karaktere).

Zehaztu nola planifikatzen duzun euskarari espazio garrantzitsu bat ematea proiektuaren diseinuan eta ezarpenean. (Gehienez 400 karaktere).

LANKIDETZARAKO GAITASUNA ETA ESPERIENTZIA.

Bete taula, eta sartu erakunde publiko batek gauzatu eta diruz lagundutako ezagutza zabaltzeko proiektuen hiru erreferentzia. Esan ezazu talde-proiektua den, eta aipatu proiektua gauzatzen parte hartu duten beste entitateak.

Proiektuaren titulua	Entitate laguntzaileak	Aurrekontua	Entitate finantzatzailea	Egikaritzeko epea	Helburu diren herritarrak

V. ERANSKINA

BESTE LAGUNTZA BATZUEN AITORPENA

Organismoa	Izena	Deialdia	Eskatutako zenbatekoa	Emandako zenbatekoa	Egoera	Kontzesioaren data